

# BERRIGARA

42. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, azaroak 22

Bergara

**Kirol  
sariak**  
(I)



**Errotalde Jauregia**

Kultura ihardueren zentrua



**Sexua eta  
osasuna  
III. adinean**



**Elkarte  
arteko  
karta txapelketa**



**Iñigo  
Igartuarekin  
berriketan**



**CALIBRA**  
by Opel

**BENETAKO  
INGENIERIA ALEMANA**



**TALLERES  
OLA, S. L.**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46  
BERGARA (Gipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn  
Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO, LEINTZ BAILARA  
ETA GOIERRI GARAIrako

Esperientziak onenak

**OPEL**

Kontzesionario ofizialak

# AMETSA Bideoa



- Erreportajeak, Bodak
- Kirol grabazioak
- Bideo Industrialak
- Zinten kopiak egiten dira

Santalaitz 4, San Lorentzo Poligono Industrialak  
Tfnoa: 76 54 35, BERGARA

## LAGUN ARO

ASEGURUAK

Agentea:

RAMON IRAEGUI



Ramon M. Lili 6  
Tfnoa: 76 23 30  
Faxa: 76 41 54  
20.570 BERGARA

ORDEZKARIA  
BERGARAN




## VID-ART

Bidriera artistikoak

BIDRIERAK - MURALAK -  
ISPILUAK-KRISTAL  
BISELATUZKO  
ATEAK - etab.


Azal eiguazu zure ideia  
VID-ARTEk egingo dizu.



BELANBIDE, Z/G - 20.570 BERGARA - GIPUZKOA  
Tfnoa: (943) 76 23 30 / 76 41 54

# Biltoki

GAUZAK ERRAZ JARRIKO DIZKIZUGU!



Sukalde eta bainugelarako mobleria  
Diseinua eta goimallako kallitatea  
5 urteko garantia

San Pedro z/g  
Tfnoa: 76 34 00



Teknologia eta diseinua  
TB-BIDEOAK eta HI-FI MATCH-  
LINEekipoak  
K-200 telebista berriak

Barrenkale, 6  
Tfnoa: 76 25 96

dekorazioa

Esiloko altzariak eta gazteentzakoak  
Alfonbrak. leiho-oihal, narruzko sofak,  
tapizak,...  
apaingarriak

San Martin 2  
Tfnoa: 76 43 51

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**

Jaçdun Elkarte  
Errotalde Jauregia, 20.570  
Bergara

**Tfnoa eta Faxa:** 760397

**Laguntzailea:** Bergarako  
Udala

**Zuzendaria:**

Miguel Angel Elkoroberezibar

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Eneko Azkarate, Eduardo  
Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**

Aitor Aranzabal, Iñaki  
Arietaleaniz eta Edurne Arenaza  
Tfnoa: 760397

**Erredakzio-kontseilua:** Jose  
Angel Mikeo, Estepan Plazaola  
eta Juan Martin Elexpuru

**Kolaboratzaileak:** J. Oregi, A.  
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa  
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel  
Lizarralde, Monika Belastegi,  
Mikel Elkoroberezibar, Josune  
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber  
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa  
Bikuña

**Argazki laborategia:**

A. Gallastegi, B. Cantero, M.  
Leturia, K. Retolaza, J.A. Eguren,  
J.I. Millan, J. Aguayo, J. Tabares,  
Txomin Retolaza, Kifu eta Pol-  
Pol Mendizale Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:**

Josu Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa :** Txantxangorri  
Taldea

**Copyright:**  
BERRIGARA

**Tirada:** 2.500 ale

**Legu gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain  
hartzten aldizkarian adierazitako  
esanen eta eritzien erantzunkiz-  
zunik.



**The Blues Brothers**, soul eta blues musika talderik onenatarikoak bisitatuko gaitu larunbat honetan. Talde honetako partaideak bikainak ditugu benetan, Steve Crooper kitarra eta Donald Dunn bajua tartean direla. Beraiekin batera, gaur egun blues munduan benetako mitoak diren Matt Murphy kitarra jolea, Lou Marini saxoa..., eta bihar Txibisto berotzeaz arduratuko diren beste hainbat musikari. Gaueko 11etan.

**LARUNBATA 23**

• **Kontzertuak:**

-Ruper Ordorika & Mugalaris Eibarko Unibertsitate Laboralean. 22.30etan.

• **Pelota Partiduak:**

-4.30etan Bergarako Pe-  
lotalekuan: Ansuategi-  
Salbidea/Tellétxea-Urra,  
Bengoetxea IV-Aldaza-  
bal II/Arteaga-Arretxe  
eta Murga-Andueza IV/  
Loiarte-Alberdi III.

• **Saskibaloia:**

-Bergara-Donibane (gaz-  
te neskak), 16.00etan  
-Bergara-Aloña Mendi

(senior gizonetzkoak),  
17.15etan.

• **Saskibaloia:**

-Bergara-Zumaia (junior  
gizonetzkoak), 18.30etan.

**IGANDEA 24**

• **Kontzertuak:**

-Udal Musika Banda No-  
vedades Aretoan 12etan.

• **Saskibaloia:**

-Bergara-Arrasate (ka-  
dete gizonetzkoak), 10.00-  
etan.

-Bergara-Divino Maestro  
(senior emakumezkoak),  
12.15etan.

**FARMAZIAK**



- 23 Estella/Gauetz: Es-  
pañol (Arrasaten)
- 24 Estella/Corcuera
- 25 Mozos/Irizar
- 26 Camacho/Amezua
- 27 Puy/ Ruiz
- 28 Estella/Morales
- 29 Estella/Español

**ZINEA**



*Doc  
Hollywood*

- **OSTIRALA:** 22.30etan.
- **IGANDEA:** 17,00; 19.30  
eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:**  
19.30etan.

*Agente juvenil*

- **LARUNBATA:** 17,00;  
19.30 eta 22.30.

**OGIA**



**Bolintxo**

**KIZKUR**



**Ileapaindegia  
Solariuma**

**Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32**



**BERGARA**

**Tfnoa: 76 25 99**

**ETXAGI  
Jatetxea**

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak  
Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak  
Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

# Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74



## Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

### Ez al dira errepide gehiegi?

Joan zen ostiralean, hilak 15, Europako erakunde ekologista askok errepideen gehiegizko ugaltzearen aurkako eguna izan zuten. Azpiegitura honek, ingurunean izugarritzko txikizioak sortzeaz gain, norgehiagoka eta kontsumoa helburu dituen garapen eredia indartu ere egiten dute.

Iaz Europako hamaika estatutako talde ekologistek parte hartu zuten Suediako EYRAk proposaturiko inizatiba honetan, errepide berriek basoetan duten eraginak kezkatzen du EYFA batez ere. Elkartea Suediar honen kalkuluen arabera, 2.010 urtera arte 20.000 kilometro karretera berri egingo dira, horretarako urtero 6.300 bilioi pezeta erabiliz.

Eguzkik ere, parte hartu zuen nazio arteko deialdi honetan, gure inguruko errepide proiekturik eztabaidatsuen salatuz: Irurtzun-Andoain autobidea.

Kontutan eduki behar ditugu gure eskualderako proposatutako proiektu gutztak ere. Debako Korredorea eta Durango-Beasain korredorea.

Lehenengo proiektuan fase desberdinak nabaritzen ditugu, hau da: Arlabango autobidea eta Bergara-Arrasate autobidea.



Fase hauek egiteko epea 1.991-1.993 artean kokatzen da. Aurrerago, beste fase batean Bergara eta Maltzagaren arteko zenbait puntu ilun konpontzeko asmoa dago, epea 1.997ra arte luzatzen da. Guzti honen aurrekontua 10.000 milioitakoa izango da.

Durango-Beasain korredorea, Epele-Kanpazar saihesbidea eta Bergara-Zumarraga fasetan banatu dezakegu. (Azkenengo honek Antzuolako saihesbidea eta Deskargako tunela barne dituelarik). Bigarren bide honen aurrekontua 14.000 milioitakoa izango da, egiteko epea 1.990-1.996 delarik.

Hau "gutxi" bada ere ezin dugu ahaztu aspaldiko Maltza-Armiñon autopistaren (autobidea) proiektua, nahiz eta gaur egun "diskusio" momentu baten egon. Gasteizko gobernua autobidea eraikitzea onartzen badu, 40.000 milioi baino gehiago kostako da, aldiz ordaintzen den autopista eraikitzen badu, 12.000 milioi gehiago izango lirateke.

Eguzki

Tiiira ba!



Josu Okina

### □ Santa Cecilia

*Bergarako Musika Bandak* igandean, hilak 24, *Santa Cecilia* musikarien patroia- ren eguna ospatuko du. Goizeko 10etan Hospitalean meza entzun eta ondoren kalejira egingo dute herriko kaleetan. Hamabi t'erdietan berriz, kontzertua eskeiniko dute *Novedades Aretoan*, Bergarako Udalak eta Musika Bandak *Jesus Berroyari* azken 50 urteotan egindako lanagatik omenaldia eskeiniko diotelarik.

### □ Luis Mari Mujika

*Luis Mari Mujika* idazle eta ikertzaileak *Antzuola* eta inguruko toponimiez egindako liburua salgai duzue *Antzuolako Udaletxean* 1.650 pezetatan. Mujikak, guztira, *Antzuolako* 1.750 tokizen bildu ditu.



## Osasuna eta sexua

Gaur ostirala, hilak 22, amaitu dira Jubilatuen Egoitzan hiru egunez burututako *Emakumea, osasuna eta sexualitatea hirugarren adinean* ihardunaldiak. *Emakumearen Laguntzarako Zerbitzuak* eta *Jubilatu- en Egoitzak* 3. adinakoei beraien problematikari buruzko informazioa eskeintzea nahi izan dute eta jende dexente izan da hitzaldi ezberdinetan;

astelehenean, *Pilar Otegi* Udal Zerbitzuko sexologoak *sexua hirugarren adinean* aztertu bazuen, asteazkenean Onkologikoko *Maria Jesus Mitxelena* medikuak *titi minbiziari* buruzko hitzaldia eman zuen eta gaur berriz, *menopausia eta ginekologi minbiziari* buruz jardun du *Lourdes Arizurri* Onkologikoko sendagileak.

### □ 65eko kintoak

Datorren larunbatean, hilak 30, *65eko kintoek* afaria izango dute *Antxoni Jatetxean*. Joan nahi izanez gero, hilaren 26a baino lehen eman beharko duzue izena *Sanchez ileapaindegian*, *Zernai* tabernan edota *Mujika* ferreterian.

### □ Argia eguna

Igandean, hilak 24, *Argia eguna* ospatuko da Euskal Herri osoan zehar. Gure herrian ere euskal astekari honek argitaratzen duen materiale guztia eskeiniko da kalean jarriko diren mahaietan eta 1992eko egutegia ere zabalduko dute *Argiakoe* igandean. Era berean, harpidedun egiteko txartelak ere egongo dira prest nahi duenarentzat.

## Karta txapelketa

Joan den larunbat gauean hasiera eman zitzaion Jubilatuetan aurtengo *Elkarteen arteko Karta Txapelketa*ri. Hamaika elkarteko jokalariek izan zuten afariaren ondoren musean 8 erregetara, 10 erregetara eta tutean jardun zuten. Final laurdenetan, *Hermanad Pertxa*, *Lasai-Toki*, *Pertxa* eta *Oilagorrra* elkarteek klasifikazioa lortu zuten; astebukaera honetan eta hurrengoan *Lasai Toki-Pertxa* eta *Oilagorrra-Hermanad Pertxa* finalerdien joan eta itzulerako partidak izango dira, irabazleek abenduaren 14an partida bakarrera finala jokatu dutelarik.



**ORTZI**  
Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

ARTISAUTZAKO IZOZKIA

**GOYO-TOKI**

D. Irola, 3 - Tlf. 761235  
Matxiategi, 34 - Tlf. 762337  
BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA  
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE

□ **Urteroko jai**

Arrasaten bizi diren bergarrek beraien urteroko jai ospatuko dute abenduaren 14an. *Kataiden* izango den bazkariaren ondoren dantza jaialdia izango dute eta pertsona edadetuenentzat ere opariak izango dira. Interesatuak Arrasateko Olarte kaleko *Bonet supermerkatuan* eman dezakete izena.

□ **Prentsa lokala**

*AED Kultur Elkarteak* antolatutako, astebukaera honetan, hilak 22 eta 23an, *Prentsa lokalari buruzko*

*Ihardunaldiak* izango dira Arrasateko Lankide Aurrezkiko Aretoan. Ihardunaldi hauetan Frantzia, Katalunia eta Euskal Herriko herri komunikabideetan lan egiten duen hainbat jendek hartuko du parte. Bi saioak goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 7ak aldera amaituko dira.



**Eskaparate lehiaketa**

*Udal Kultura Zerbitzuak Eskaparate lehiaketa* antolatu du Gabonetarako. Parte hartu nahi duten merkatal-etxe edo denda guztiek prest izan beharko dituzte eskaparateak abenduaren 20rako eta erakustaldiak urtarrilaren 1erarte iraungo du.

Epaimahaiak, besteak beste, imajinazioa, orijinaltasuna eta iragarpenaren eraginkortasuna eta kalitatea izango ditu kontutan sariak banatzekoan, eta urtarrilaren 2an emango duen eraba-

kia aldaezina izango da. Sari interesgarriak ere egongo dira hiru lehengoentzat; lehena ehun mila pezetakoa, 50.000 pta.koa bigarrena eta 25.000koa hirugarrena. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izateko aurrez izena eman beharra dago *Kultur Etxean* azaroaren 30a baino lehen. Behin izena emanda gero, Udalak parte hartzaile guztiei eskaparatean ikusgai izango den *parte hartzaile agiria* banatuko die.

□ **Komertziantek**

Ostegunean *UNEDeko* Aretoan bildutako *komertziantek Victoriano Gallastegi* alkateari idazki bat bidaltzeko akordioa hartu zuten. Idazki honetan, *Diputazioak Iharduera Ekonomikoen Zerga* berrirako agintzen duen kuota-  
ren gainean Udaletxeak onartutako 1,3 koefizientea ez ezartzea eskatzen dute. Era berean, galdetzen dute zer nolako erizpideak erabili izan diren koefizientea zehazteko.

□ **Ekin Euskarari**

*Eusko Jaurlaritzak* antolatutako *Ekin Euskarari* erakusketaren inagurazioa datorren asteartean, hilak 26, Udaletxeko Pleno Aretoan izango da arratsaldeko 7etan. Euskara gizarteratzeari buruzko erakusketa abenduaren 8ra arte egongo da ikusgai.

**TOKI-EDER**  
**Taberna**

**Pintxoak eta eguneko bazkariak**

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

**MUGICA**

**Burdindegia**

Bdekurutzeta 8

Tfnoa: 76 28 67

BERGARA

**KONDE**  
**PANADEROKUA**




Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57



**LASA**  
**JATETXEA**

Bdekurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29



## Agur, Everest

Jendea kabidu ezinda egon zen joan den ostegunean *Amaia Aranzabal* bergararra eta *Iosu Bereziartua Azpeitia Everest 91* espediziokideek *Euskara Gazteena* kanpainaren barruan UNEDen emandako hitzaldian.

Bildutako jendeak mendizale hauek *Himalayan* ateraratako diapositibak ikusi eta, bide batez, han izandako esperientzi bitxien berri ere jakin nahi izan zuen. Besteak beste, dirua dela Everestera joateko kezka

nagusia, beste espedizio txikiagoren bat antolatzeko prest leudekeela eta espedizioa preparazio aldetik, gailurra lortzeko gai zela adierazi zuten bi mendizaleek. Azkenean, haizeak ez zien bigarren saiakera bat egiteko aukerarik eman eta bueltatu behar izan zuten. UNEDen bildutakoek ere gailurretik gertu egoteko eta baita kuriosidadea asetzeko aukera izan zuten Amaia eta Iosuk ekarritako diapositiba eta kontuei esker.

## Txinpartak

✓ *Bergara Igeri Elkarteko* 16 igerilarik (11 mutil eta 5 neska) hartuko dute parte larunbatean, hilak 23, *Ordizian* jokatu den *Gipuzkoako Igerilari Konpletorenaren Txapelketan*. Probak goizez eta arratsaldez izango dira.

✓ *Toledoko Eskola Gregorianoak* ordezkatu du *Azaro-abendu Musikalaren* barne gaurko, hilak 22, programatuta zegoen *Pragako Antzoki Nazionalako Kamara Orkestra*. Kontzertua arratsaldeko 8etan hasiko da *Novedades Aretoan*.

✓ Hamar bat bergarrek joan den asteko astelehenetik Egiako elizan entzerraturik dauden *Lurraldeko Koordinadorako* kideekin solidarizatu nahi izan dira; asteazkenetik ostegunera bitarteko gaua UNEDen pasa zuten autobieren ibilbide ofizialaren onartzearen kontra protesta egiteko.

✓ *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoen saioa izango da larunbatean, hilak 23, Antzuolako Pelotalekuan. Ondoren gaztaina erreak izango dira umeentzat.

✓ *Bergarako futbol taldeak* lehen errejionaleko lidergoa lortu zuen igandean *Vasconiari* 1 eta 0 irabazi ondoren. Lidergo hori mantentzea izango da bergararren helburua astebukaera honetan *Usurbilen* jokatu duten partiduan.

✓ *Ricardo Azkargorta* margolari bergararrak akzesit berezia lortu du Hispano Amerikano banketxeak antolatutako *Imajina ezazu Euskadi* lehiaketan *Memoria de un interior* lanagatik.

### REMENTERIA Altzariak

Egongelak / logelak  
Aukera guztiak / enkarguak

Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

### LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

### URRATS



Kafetegia

Ibargaral Tfnoa: 76 52 92  
BERGARA

### ayastury JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA



# Errotalde Jauregia

Herriko kultur ekintzen zentrua

*Errotalde Jauregian kokaturik dagoen Bergarako Kultur Etxea, herrian egiten diren kultur ihardueren gune bilakatu da azken bi urteetan. 1.989.eko pazkuetako igandean ireki zen, bertan, besteak beste, Udal Liburutegia jarri zelarik. Gaur egun erakusketak, hitzaldiak, bideo proiektzio eta ikastaroak etab. sarri antolatzen dira, eta kulturaren inguruan lan egiten duten hainbat taldek bertan lan egiten dute.*

Murua-Balzola fundazioak Bergarako Udalarekin sinatutako hitzarmen baten bitartez, Errotalde Jauregia 20 urtetarako Udalari utzi zitzaion. Horrela, bada, 1.661etik Murua dinastiaren etxea izandakoa erakunde publiko baten eskuetan geratu zen, aipatutako hitzarmena-

ren ondorioz.

Jauregia berritu ondoren orain dela bi urte t'erdi inguru Kultur Etxea zabaldu zen.

## **Kultur ihardueren gune**

Gaur egun, Kultur Etxea Bergaran egiten diren kultur ekintzen ko-

kagune bihurtu da. Asko dira euren bulegoak Errotalde Jauregian dituzten talde edo elkarteak: Jardun elkarteak, Bergarako Kultur Ekin-tza, Numismatika taldea, eta E.H.E. besteak beste.

Horiez gain astero-astero era guztietako ikastaro eta erakusketak antolatzen dira. Hurren-

go lerro hauetan aipatzen ditugu batzuk:

Nerea Ibaberen ardurapean dagoen Bideo Gelak, hilean bideo ikastaro bat antolatzen du. 2 urte direla ireki zen zerbizutik 75 bat lagun pasa dira *Sielbergenak* egiten ikasteko asmoarekin. Ikastaroaz gain, bideo tresneria erabiltzeko aukera ematen zaio aparailuak erabiltzen dakiela ziurtatzen duen edozeini. Abendurako ikastaro berri bat antolatu da. Beraz, badakizue, interesatuok joan zaitezke lehenbailehen izena ematera Kultur Etxera bertara.

Bergarako Kultur Ekin-tzak, bere aldetik, pintura ikastaroak antolatzen ditu. Etxeko ganbaran, aste bat bai bestea ez, asteartetik ostegunera Juan Balentziagak margogintzaren sekretuak erakusten dizkie dozena bat laguni.

Emakumearen Zerbitzuak, bestalde, eskulan ikastaroa antolatzen du. Astearte eta ostegun arratsaldetan 50 bat emakumek makramea, hiru dimentsiotakoak, espiluak etab. lantzen dituzte; benetako arte lanak egin ere!. Justi Asensio da irakaslea eta urtea dararama lanean.

## **Txanpon eta seiluekin jolasean**

Txanpon eta seiluen

**LARRAÑAGA**  
eta **ZUBIA**

**Banatzailleak**

**Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejlak**

Martokua 32, tfnoa: 764594

**ARRASATEARRA**

**Gure berezitasuna bazkariak.  
Eguneko menua daukagu.**

Zublaurre 22, Tfnoa: 76 20 19

**BERGARA**





munduan murgildurik dabilzanak asko dira Bergaran. 1.970an sortutako taldeak 73an egin zuen lehen erakusketa. Harrezkero urtero-urtero antolatuta ohi dute aurtengoa 20. edizioa izan delarik.

Taldekideten eritziz, "Kultur Etxea bilerak egiteko toki aproposa bada, erakusketatarako ez da egokiena. Herritik apur bat alboratuta dagoela pentsatzen dugu".

Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen Elkarteak 60 lagun inguruk osatzen dute eta astelehen eta ostegunetan bilzen dira. Bergarakoekin batera Eibarren dagoena da bailarako horrelako elkarte bakarra. Horregatik elkarteko bazkideen artean beste herri batzuetako zaletuak ere aurki ditzakegu.

**Bergarako komunikabideak**

Jardun Elkarteak kaleratzen duen *Berrigara* astekaria eta Bergarako Kultur Ekintzaren ardurapean hilero agertzen den *Ariz-Ondoren* erredakzioak ere Kultur Etxean kokaturik daude, aipatutako bi elkarteok dituzten bulegoetan, hain zuzen ere. Bertan idatzi eta maketatzen dira bi errebistak eta argazkiak, berriz, etxean bertan dagoen argazki laborategian errebelatzen dira. Pol-Pol mendizale talde-

ko argazkilariek lan bikaina egiten dute astero *Berrigaran* agertzen diren erretratuak paperera pasatzen. Laborategiaz gain, argazki estudio bat ere bada etxean, Pol-Poleko argazki taldearen ardurapean.

**Kultur gestorea**

Errotalde Jauregiaren gestioa Rufina Olasagastik eramaten du. Joan zen maiatzetik dihardu lan horretan eta orain dela hilabete t'erdi ingurutik, administrazio lanetan Eva Alberdik laguntzen dio.

Etxeko lehen solairuan kokatuta dagoen bulegotik, eta beti ere Udaleko Kultura Batzordearekin harremanetan, kultur mailan Bergaran egiten denaz arduratzen da. 1.991an 50 milioi inguru bideratu ditu Udalak kulturara.



Astero 50 bat emakume eskulanak egitera Kultur Etxera.

**Zaldunen Jauregia Kultur Etxe**

Gaur egun Bergarako Kultur Etxe den Errotalde Jauregia, konteen etxea izan zen aurreko mendeetan. Domingo Martínez de Murua zalduna, Erregeren zerbitzari zenak Martín de Arostegui bergararrari Errotalde Jauregia, Santa Ana ermita eta inguruko lur-sailak erosi zizkion.

José María de Murua, aurrekoaren oinordekoa, Cipriana Balzola-rekin ezkondu zen 1.816an. Hauen seme bakarrak, Ignacio Murua eta Balzolak, jaso zuen heredentzia. 1.893an Pilar Labayenekin ezkondu eta ez zuten semerik izan. Hauek hil zirenean oinordeko zuzenik gabe geratu ziren Murua-Balzolatarrak.

Gauzak horrela orain dela urte batzu, etxearen jabea zen Murua Balzola fundazioak, Errotalde Jauregia Bergarako Udalarari 20 urtetarako utzi zion.

Konteen jauregia izan zena Kultur Etxe bihurtu zen.

**IRUBIDE**

**Taberna**

Bazkariak, gosariak, afariak, etab.

Urteaga 9, Tfnoa: 76 25 67



**ZABALETA ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak. Fatxadak, eskaparatek...

Amilaga (Gasolinera ondoan) Tfnoa: 76 57 34

## Tenplarioak ote Santa Luzian?

*Santa Luzia baserrian orain dela urte asko zegoen izen bereko ermitari buruz jarduten du aste honetan Imanol Sorondok. Berak dioskunez, tenplarioen toki bat omen zen Santa Luzia.*

**G**aurko Santa Luzia baserria, lehenagotik, izen berdineko ermita zen, Larrarteko gaztañadi batean gordea, frantziarrak eraman zuten haien aurkako gudan, *frantzestian*. Begietako gaitzen babestzailea izan da.

Bi gauza bereziak zeuden Santa Luziako ermitan: ateburuko gurutzeak, eta aldare nagusiari zegokion hormaren pinturak. Badirudi Oxirondoko Santamainan eta Uzarragako San Juanen Tenplarioak zirala; horrela entzuna zeukala zioen Garibaik orain 500 bat urte. Erdi erlijioso, erdi gudari, tartean bideen babestaile ziran horien seinaleak, gure bi eleiz horietako ate buruetan zeudela adierazi zuten 1.625ean Isastik bere liburuan.

Seinale bat T (tau) moduko gurutze bat zen. Santa Luzia ermita izandakoaren barrengo ate

buruan horrelako hiru gurutze zeuden margotuak, ia urratuak baziren ere. Tenplarioen toki bat ote Santa Luzia?.

Bertatik bide batzuek ondo ikusiko ziren. Europako kristau erregeek XIV garren gizaldiko lehenbiziko urteetan desegindu zituzten, eta beren ondasunen jabe egin.

Ermitaren aldare nagusiari zegokion horma margotua zegoen. Behin bertako nagusiarekin, Paulorekin (G.B.), garbitu nuen bere igeltsutik gelditzen zen zatitxoa, eta iruditxo bat ikusten zen oraindik, ia urratua..., noizkoa?... "Pista" baterako bada, ausartuko naiz iritzi bat ematera: XV garren gizaldiko bukaerakoa. Orain 30 bat urte izan zitekeen interesgarria Gipuzkoa mailan. Gaur galdua da, tasmalez.

*Imanol sorondo*



*Santa Luziako baserriaren atzekaldeko zelaian (goiko argazkian ikusi daitekeen zelaian), zegoen ermita. Beheko argazkian, Santa Luzia baserria aurrekaldetik hartuta.*

**MEMESA**

**IRIMO**


**SKF**

**phantom**

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta

# GIARTZU



## GIMNASIOA

- ✓ Muskulazioa eta kulturismoa
- ✓ Mantenu gimnasia
- ✓ Giartzu dermoestetika
- ✓ Estetika gela
- ✓ E.K.I. (IVEF)rako sarrera prestakuntza.

Boni Laskurain 3, etxabea

BERGARA

Tfnoa: 76 35 71

## BERGARAKO AZOKA

**JUANITA MORENO**

Arraindegia

Etxekoa: 76 12 54  
Azoka: 76 02 44

**GABILONDO**

Harategia

Azoka: 76 26 98  
Etxekoa: 76 26 53

**JANARI**

**FRESKOAK**

**AUKERATUAK**

**LURDES**

Harategia

Esneko moxala

Tfnoa: 76 12 17

**IZOTZ**

Konjelatuak  
Errefrijeratuak

Mariskoa

Tfnoa: 76 56 91

**MERTXE**

Oilaskoak  
Urdaitegia

Tfnoa: 76 54 67

**YANIRE**

Frutadenda

Tfnoa: 76 52 34

**LA BERMEANA**

Arraindegia

Azoka: 76 15 16  
Etxekoa: 76 00 48

**PATRI**

Harategia  
Txerrikitegia

Tfnoa: 76 02 20

**PRIMI**

Arraindegia


Azoka: 76 15 90  
Matxiategi: 76 21 91  
S. Antonion: 76 21 08

# BONOFOTOA

**BERRIGARA**

*Jardun Elkartea*

1991, irailak 6



M. A. Elkorobereibar

## Berriz ere jokuan zuekin !!

*Zein da iturri honen izena eta zein urtetan egin zuten?*

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfinoa: \_\_\_\_\_

Moztu paper hau eta ekarri astebete baino lehen: **BERRIGARA**

**Errotalde Jauregia**

**20.570 Bergara**

*Oharra: Asmatzailerik azalduko ez balitz, saria hurrengo  
BONOFOTOarako gordeko litzateke, FOTOPOTEAN*

# Bildu dudan sortatxotik...

## Salatu beharrekoak

Antonio Urzelai

**O**rain dela aste batzuek, *Berrigara* astekarian idatzi nuen, frantsez aldizkari baten iritzia: "Ibai ertzetako irudiak, beraren inguruko bizilagunen ispilurak direla". Ez dakit, irakurle, bat etorriko zeran iritzi honi buruz. Neuk, zati handi bat, ontzat emango nuke.

Oraindik denbora gutti dela, sortu zitzaidan topakizun baten gazkiesanen ondorioak dituzue jarraian: Jai biharamona zen, eta, oso ezaguna dudan Kristobalekin trink egin nuen Ariznoa plazan, *Goiko plazan*, hain zuzen. Uste dut, ikusmira berdina genduela aurrez-aurre. Hasi, San Pedro eliz ataritik, Izurradero bidai esturaino, plaza eta Komenio kalea barne, zikinkeriaz eta pixa putzuz apaindurik agertzen ziren. Esan zitekeen, gure herriak mugidura gehien duen ibiltokian aukeratu zutela, agerke-ta berezi honetarako.

Galdetu nion Kristobali: "zer esan dezakezu, aurrean dugun ikuspegi honi buruz?"

Berak, "zehatz moztu behar litzatekeela. Osasun arazoak aparte, Bergarako herriaren irudia eta izena, edozein lotsagaberen menpe, ezin zitekeelako utzi" erantzun, eta galdera hau egin zidan:

- Eta, zer esan dezakezu zuk, non-nahi, hormarik-horma ezartzen diren publizitate, pintada, nolabaiteko marrazki eta hainbat zapi aldakor eskegirik?"

Pasa dan hamarkadan, hainbat etxe barri eraiki dira; zaharrak berriztatu, antzinako jauregi eta

gatzeluak txukundu; baserriak ere, alaitasunezko disdira dutelarik, tajuz zurituta ikusten dira. Egin-kizun txalogarri honi esker, herriko kale eta hiribide gehienak edertu zaizkigu.

Zertarako?. Talde batzuek, askatasun osoz, lapitz eta isipuak eskuetan dituztelarik, zikindu eta itxuragabetzeko. Erakustoki, banketxe aurre, atari zabal etab. apurtzen dituzte, inoren oposaketarik gabe. Ez naiz ari hemen, zirriborrokeriak asmatzen. Zoritzarrez, kalean gabiltzan bakoitzak dazki, hemen azaltzen ditudan salaketak hor daudela, herri guztiaren begibistan".

- Bai, egia da, Kristobal, zuk

diozuna. Eta, ahal dutenak, berriro ere zabalduko dituzte denda eta lantokiak. Ezinean erortzen direnak; izorra adi!!.

Kristobalek hartu du berriro hitza, galdetuaz, kalte probokatu horiek, nork ordaintzen ditu?.

"Gizatasuna duten herrialdeetan, kalte egiten dutenek ordaintzen dute. Hemengoak, probokatuak direnez gero, parean erortzen diren gizajoak paga beharko, *hirugarren munduko* gizadiak bezelaxe", erantzun nion.

- Zuk uste duzu, Kristobal, Bergarako bizilagunek ados dagozela konportamentu eta jokaerak horrela jarrai dezaten?

- Ez. Ziur nago, herria maite duen jendeak garbi erakusten dela beren haserre, batipat, abusu inposatu hori aitzenean dugulako. Bestalde, inork publikoki salatzen ez dugun bitartean, horrela jarraituko dugula esan genezake.

Asko dira gure lagunartean galdetzen dutenak, non daude, adibidez, Udal Ertzainak, abusu horiek kontrolatu eta mozteko?. Hainbat eztabaida sortzen dira solasaldietan, Udal Ertzainen portaera dela ta. Baina, hori ez da nire ardura. Hor daude, beren agintariak, ekintza-aginduak nola bete behar dituzten neurriak jaritzeko.

- Uste duzu, orduan, Kristobal *Berrigara* astekari eta *Ariz-Ondon* agertu litzatekeela akats horiek.

- Toki egokiak izan litezke bai. Hona, bada, proposamena nahi duenarentzat.

AGIRREBEÑA

Oinetakoak  
Erropa denda  
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubleta 46  
BERGARA  
Tfnoa: 76 12 31

Taberna kafetegia

EHIZTARIAK  
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna  
Zubleta 26, BERGARA



**ETXE-  
-AUNDI**

**Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**FS**   
oto sistema

**ARGAZKIAK  
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaia.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

## Kultur Etxera joaten zara?



Arantzazu Arizmendi  
20 urte, ikaslea

Bai, klaseko lanak egitera etortzen naiz. Noizean behin, irakurtzeko liburu batzuk ateratzera ere bai.



Jokin Elkoro  
16 urte, irakaslea

Batzutan, lanak egitera. Erakusketa interesanterik dagoenean ere bai.



Enrike Olabide  
43 urte, langilea

Ez naiz joaten baina gustatuko litzaidake denbora hartu eta bueltatxo bat ematea.



Miren Albistegi  
46 urte, etxekoandrea

Normalean emakumeentzako ikastaroren bat dagoenean. Oso ondo dago.

*Nahikari*

**Ivan Martinen**

**ERAKUSKETA**

Mahasterreka 20, Tfnoa: 76 57 71  
BERGARA

**URKIOLA**

**Gizon eta emakumezkoen moda**

Bidekurutzeta 42 Tfnoa: 76 16 48 BERGARA




*Domeka  
petralak*

Athletic zaleek ez ditugu egun ederrak bizi, futbol kontuan behintzat. Gainera, aurreko denak gutxi zirela eta, Errealaren kontra galdu. Hamabost egunetan realistak barrez ikusi behar; eta gu, belarriak makurtuta. Eta gainera zapatuan galdu. Ezin da gauza okerragorik izan futbolzale batentzat: bere taldeak zapatuan galtzea. Domeka osoa emaitza horixe entzuten pasatu behar.

Telebistan eta irratian etengabe ikusi edo entzuten dira aurreko egunean lehen mailan izandako emaitzak: Errealak 2; Athletic-ak 0. Kalera irten eta hamar pausu eman aurretik lehenengo Athletic zalearekin topo egin nuen: "Penaltixa ez zuan izan. Hantxe galdu ginuan partidua". Baietz erantzun behar. Hura laga eta kantalean hor dator errealezale satellite bat, egunkaria zabal zabalik duela: "Ostikadak emun besteik ez zinuen in. Piparrrik pe ez dezue jokutzen". Entzutea tokatzen da egun hauetan.

Eguardian bertso jaialdira joan nintzen eta han ere taka, gaia tablau gainera: "Hi, Peña, Iñaki Saez haiz; hi, Sebastian, berriz, Toshack. Hiruna bertso zortziko txikian". Banderila bat jatera joan eta tabernaria telebistari begira, zerbitzeari lagata. Lepoa bihurtu eta atzoko golak. Egia esan, horrelako egunetan hobe lo gelditzea.

**Joseba Lezeta**



*Prentsa  
lokala  
aztergai*

Herri-prentsa aztertu asmoz, ostiral eta larunbat honetan, hilak 22 eta 23an, Arrasaten Prentsa Lokalari buruzko I. Ihardunaldiak burutuko dira. AED, Arrasate Euskaldun Dezagun, elkarteak antolatutako ekimen honetan Katalunia, Frantzia eta Euskal Herrian herri mailako komunikabideetan diharduten 150en bat lagun biltzea espero da. Ihardunaldi hauen helburua, herri mailan aurrera eraman diren esperientzia desberdinak ezagutzea.

Izan ere, azken urteetan herri aldizkariak nonahi eta nolana sortu dira, txanpinoiak zaparrada ostean bezala. Herri prentsari buruz hitzegiterakoan, pizkundera aipatzen zuen lagun batek. Pizkunderaz baino, neuk sorkunderaz hitz egingo nuke, herri mailako prentsaren esperientzia gauza berri eta gaztea bait da; hau da, aurrekinik ez duena.

Herri prentsari buruz, lehen aldiz antolatzen diren Ihardunaldi hauek Arrasaten izatea ez da kasualitate hutsa. AEDk ATB eta Arrasate Press sortu zituen. Astekaria, Euskal Herrian herri-prentsa mailan aintzindari eta, kasu askotan, eredu izan da. Hizkuntzaren hedapena eta gertuko informazio zuzena helburu, instituzioen laguntza ekonomikoarekin eta dohainik banatzen diren aldizkariaren eredu arrunt bilakatu da Euskal Herrian.

Informazioaren landa zabal horretan dabiltzanen esperientzia desberdinak ezagutzeko balioa izango dute Arrasaten burutuko diren ihardunaldiek. Esperientzia aberasgarria benetan.

**Beñardo Kortabarria**

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**

San Lorentzo 25, Tfnoa: 76 11 58  
**BERGARA**



**ETXEBERRIA**

**ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
**BERGARA**

**YAZKI**  
**UME GAZTE**

Irizar 3 Ibargarai 8  
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73


**Kirol Moda  
SURF**

**AISOR**

**Rip Curl , Town country, Quick Silver, O'Neill**

**Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA**

## Zeuk galde



**42.** Askotan esaten da oraingo mutil gazteek gehiago laguntzen dutela etxeko lanak egiten. Hori egia ote da?

Badaude horri buruzko datuak, aurtengoak gainera, Eusko Jaurlaritzako Estadistika Erakundeak eman ditu. Eta datu horien arabera, egia da gehiago direla etxeko lanak egiten dituzten gazteak zaharrak baino. Hala ere, diferentzia ez da oso handia. 16-34 urte bitartekoetan etxeko lanak egiten dituztene-tatik %8,8 dira gizonetzkoak; 35-54 bitartekoetan, %7,7 eta 55 urtez gorakoetan %4,4.


## □ Kantu kantari

Lizarraraino joan zitzaizkigun igandean *Orfeoikoak* astebeteko aurrerapenez *Santa Cecilia* musikarien patroia-aren eguna zelebratzera. Musika, nola ez, izan zen protagonista nagusia eta goizean meza kantatu nahi izan zuten Orfeoikoek; oraingo honetan, Orfeoiak gonbidatuta, *Jesus Berroya* zuzendari eta *Andoni Sagarna* organista aritu ziren. Handik, bildutako 80 lagun inguruk, *Luis Abajo* Kultur zinegotzia tartean, kanpinera jo zuten bertan bazkaltzeko. Imajinatzen dugu, ohitura... eta giroari jarraituz, bazkalostean ez zirela kantuak faltako.



## □ Berrito elkaturik

Urtero bezala, joan den larunbatean *58ko kintoak* bildu zitzaizkigun. 1.938. urtean jaiotako gizon eta emakume hauek lehenbizi hildakoen omenezko meza izan zuten Monja Zaharretan. Ondoren, pote batzuk hartu eta 40 bat lagun *Antxonira* joan ziren bapo afaltzeko. Gure argazkigileak han harrapatu zituen, umoretsu. Afalosteko juergaren argazkirik momentuz ez dugu lortzerik izan..



# Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA



Era guztietako  
kristaleria: Ispiluak,  
bidrierak...

## UR Kristaldegia

Urteaga 8, Tfnoa: 76 54 68 BERGARA






**Hiru artista**

*Jesus Mari Lazkano*

Estatuko proiektio haundie-  
neko pintore izendapenez  
gain, *Kutxu Otamendi* eta  
*Bingen de Pedoren* erakus-  
ketak ere aitzaki aproposak  
dira bergarar margolari  
hauek lerro hauetara ekar-  
tzeko. *Otamendik* Donostia-  
ko Buen Pastorreko *Galeria*  
16en aurkezten ditu akrilika  
pinturaz egindako formato  
haundiko lanak. *Bingen de*  
*Pedoren* margoak, aldiz,  
Bergarako *Kultur Etxean*  
bertan ditugu ikusgai joan  
den astetik. Hiru artista,  
pintura ulertzeko hiru modu  
ezberdin ezagutzeko aukera.



**Zertan  
dihardute  
ba?**

M. A. ELKOROBerezibar



*Miguel Angel Elkorobe-  
rezibar Berrigarako* 25  
urteko zuzendariak "*Prentsa*  
*lokalaren finantzabideak*"  
gaiaren gainean hitzaldia  
emango du Arrasaten  
burutuko diren *Prentsa*  
*lokalari buruzko*  
*ihardunaldien* barne.

XABIER ERRASTI



Historian lizentziaturiko  
27 urteko bergarar honek  
elektriko kolaboratzaile-  
lanak egin ditu *Alas de*  
*mariposa* filmean.  
Amaierako kredituetan  
eskerrak ematen zaizkio  
*Herrasi.*

**PUB ROSA**

Tfnoa: 76 38 57  
Irala 1

**ARLA, E.L.**  
montaia elektrikoak

- Argindarra
- Elektrotresnak

Ondarre Plaza 2. Tfnoa: 76 63 36  
ANTZUOLA

**LARREA**

**TABERNA**

**Kale Barren 17  
ANTZUOLA**

## Txomin Amasorrainen Izkirimiriak

Irakurle on ori; ez nuke ba ezergatik ere nai izkirimiri onetan dongekeririk eta ezer txarrik somatu daizun, larrialdi baten ondorengo batere gaitzik gabeko ateraldi bat besterik, parregarria, beraz baita parkagarria ere. Orra ba: Ufola (ur aundia) zetorren batean *Patxiko* ibai buruan segan ari zalarik, gutxien uste zuenean irrist egin eta ibaira erori zan buruzbera bere sega ta guzi. Txarrena, ez zekiela igari bere sega ta arraitzak baiño geiago ta an joan ziran denak nahasi ibai ondarreraíño. Sega ta arraitza an gelditu ziran sekularako (Deban arrantzalaren batek jasoz ez baitu beintzat) baiña *Patxikok* beste asmo batzuk zerabilztzin kolkoan eta aliritzi

batera jotako zalaparta larri batzuez iritxi zan alako baten ur-azalera, eldu lenengo altz-adarrari bere indar guziez eta an gelditu zan estuta larri, baiña ordukoz beintzat esateko seguru, estuleta deadar larritan. Bere abarrotsetara eldu zitzaizkion etxeko ta auzokoak eta soka ta abar atera zuten geiagoko okerrik gabe legorrea. Legorreen onik ikusi zutenean bere aldekoak bizkarrean maitekiro zartatuaz badiotsa pozik...

- *Ño, Patxiko !... Eskerrak eman daizkeok Jaungoikoari!...*

Eta *Patxikok*, bere bustian bero-bero, errantzuten dio *txitxu* baino aserreago...

- Jaungoikoari bai..., altz-adarrari bai!..., Jaungoikoaren intentzi-  
oa ikusia zegokan!...

## Antzinako kontuak

### Bergarako zubiak

Bergaran dauden zubiak, tankeraren aldetik, sasoi oso ezberdinetakoak dira. Hurrengo lerrotan XVI. mendetik aurrerako dokumentuetan agertzen direnak baino ez ditugu aipatuko.

Hauexek dira aurkitzen ditugunak:

- Oxirondoko zubia: zubi berria 1.576an.

- Santa Marinako zubia: konponketak 1.631-an.

- Marutegiko zubia: 1.575.

- Azpitarteko zubia: 1.590; konponketak 1.608an.

- Mahasterrekako zubia: eskilara eta zubiak konponketak 1.591an.

- Hurrieta edo Urnietako zubia: 1.593.

- Arriagako zubia: 1.595.

- Zubietako zubia: 1.605; konponketak 1.606 eta 1.776an.

- Zubiaterko zubia:



1.595, 1.616.

- Aizparraundiko zubia: 1.593.

- Elorregiko zubia: 1.595.

- Ariztikoko zubia Antzuolako bide ondoan: 1.595.

- Ozaetako zubia: konponketak 1.597an.

- Ossiransuko zubia: 1.598.

Amaitzeko, zubien garrantzia azaltzeko adibide argi bat dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiak Deba, Urola eta Oiartzun ibaietako zubi batzuk botatzeko lanak geldierazi dituela, zubi hauek Ondasun Historikoa zirela esanez.

**Amaia Basterretxea**

## ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

## JUBILATUEN TABERNA

• Bazkari eta afariak

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

## MAHER Biltegiak L.E. Oihal etxea

Bidekurutzeta 29,  
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

## Zubiberri

*Sagardotegia*

- Eguneko menuak
- Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

Bidekurutzeta 6, behe  
Tfnoa: 76 57 68  
BERGARA

**arod**  
boutique

# Iñigo Igartua: "Ezin esan noiz ibiliko naizen ondoen"

*Iñigo Igartua bergarra dugu European zehar Superprestijioa korrituko duen Estatuko txirrundulari bakarra. Gran Camping Zarautzi esker sei aste egin ditu Oudeenaarde-n (Beljika) De Brawerekin entrenatzen eta dagoeneko heldu dira lan horren emaitzak: hiru garaipen eta igandean Zarautzeko Superprestijioko karreraren lortutako 6. postua.*



dikuarekin berba eginda gaude eta inportanteena denboraldia erregularra eramatea da, ezin leike esan noiz ibiliko naizen onduen.

*-Baina zuk zeuk ze aspizi-raziño dituzu?*

*-Zarautzen karrera ona egitea zen neure helburu nagusietako bat, 6. postu horrekin nigan jarritako konfiantza eskertu nahi nien. Gainera, ondo sentitu nintzen eta ez nuen iaz bezain nekatuta amaitu. Hemendik aurrera beste Superprestijio karreretan itxurazko papera egitea izango dut helburu. Ea puntu banaka batzuk lortzen ditugun eta horrek esan nahi du 15 lehenengoen artea sartzea. Gero, klaro, Euskadi, Espainia eta Leedsen izango den Munduko Txapelketan ere paper ona egiteko esperantza daukat.*

*-Posible ikusten al duzu Superprestijioko karreraren bat irabaztea?*

*-Inposible ez da, baina orainarte urteroko progresioa eraman izan dugu, beti ere zertxobait goraka eginez, eta behar bada oraindik goiz da halako karreraren baten garaipena lortzeko. Kontutan hartu behar da, gainera, mundialetan podiumera igo diren askok korritzen dute eta itxuraz moldatzearekin konformatzen naiz.*

*-Beljikako esperientziak zertarako balio izan dizu printzipalki?*

*-Lehen, beljiarrak eta holandarrak hemen go karreretara etortzen zirenean ez genekien zergatik nagusitzen zitzaizkigun eta oraingotan, beraiekin entrenatzean, esperientzia hartu dut, eta konturatu naiz ez dagoela inolako misteriorik: ondo entrenatu, jana zaindu eta horretara bakarrik dedikatu puntan ibili nahi izanez gero. Horrela ez dago erretzeko arriskurik.*

*-Batez ere teknika*

*landu izan duzu De Brawerekin...*

*-Oztopoak pasatzeko modua landu dut bai, teknika aldetik asko aurreratu dudala esango nuke, aldapak bajatzen konfiantza hartu eta hango zirkuituetara ere moldatu; hangoak oso lauak dira eta ez dago errekuperatzeko aukerarik, bihotza ohitu egiten da beti erritmo fuertean joatera. Hona etortzean berriaz, aldapa txiki batekin berehala errekuperatzen duzu aurrez egindako esfortzua, edozein zirkuitutarako moldatzen duzu gorputza.*

*-Ematen duenez hemen*

*ez duzu etsairik...*

*-Beljikan egin ditudan 6 aste horien emaitzak segituan ikusi dira, baina ribalidate gehiago izatea espero nuen Yurrebaso eta Izagirreraren partetik. Ni forma onean eta eurek puntu hori lortu barik egotean, oso ondo nabil momentuan, gero ikusi behar.*

*-Oraingo hau al da denboraldian ikusiko dugun Igartuarik onena?*

*-Hori ezin leike esan, igual pentsatzen duzu ez zaudela topean eta behar bada momentu onean zaude. Nik ez nuke fetxarrik emango, gu me-*

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

**LAZKANO**

**OINETAKOAK**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA



### "Acción Católica"ko dantza taldeak

**A** Itos Hornosen ateratako argazki honetan garai bateko *Acción Católica*ko bi dantza talde ageri zaizkigu: bata, Altos Hornoskoa eta kalekoa bestea. Euskal Herrian zehar hainbat ekitalditan hartu zuten parte bere garaian. Honako honetan Altos Hornoseko jaietan bildu ziren. 1949-50 ingurua zen, orduan 15-16 urte zituzten.

Hona zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Enkarnita Peña, Miren Castañares, Rosarito Arenaza, Maria Luisa Inza, Itziar Arrieta, Arantza Goikoetxea, Elisa Garmendia, Enkarna Zezeaga, Pilar Biain eta Miren Suinaga.

**Jarrita:** Maria Luisa Iñurrategi, Anita Agirre, Maria Luisa Osinalde, Beatriz Lakcano, Maria Luisa Basterra, Mertxe Lazkano, Lide Oregi, Konsuelo Martin, Alizia San Vicente, Begoña Urbina, Itziar

*Estepan Plazaola.*

*Argazkia: Miriam Zabala.*

**FERNANDEZ**



**Oihal puskak  
Oihalak**

San Antonio 3  
Tfnoa: 76 22 93

Ibargaral 2  
Tfnoa: 76 53 22

**ARREGI**

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

**SURPE**

**Taberna**

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA



## ETXEBIZITZA

**Pisua daukat eta konpartitzeko lagunen bila nabil.** Deitu: 762457 (eguerdian).

**Pisua salgai Koldo Eleizalden.** Tfnoa: 765823.

**Garajea alokalruan utziko nuke Burdihatzen.** Deitu: 763189.

**Pisu edo buhardila hartuko genuke alokalruan.** 764735.

**Pisua salgai:** bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 764971.

**Pisua salgai Dr. Fleming kalean.** Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

**Pisua salgai, garaje eta guzti.** Tfnoa: 763911.

## SALDU-EROSI

**Ollozko radiadoreak salgai.** Bost neurri normalekoak eta bat bikoi-tza. Deitu: 764988, gauez.

**YAMAHA PSR3 organoa salgai.** 24 erritmo eta 100 ahots. Hanka, transformadore eta guzti. Berri-berria: 60.000 pzta. Deitu: 765231, gauez.

**Amstrad ordenadorea salgai,** kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku eta oso merke. Tfnoa: 762512.

**Karabana berri-berria salgai** 5 pertsonarentzako abanize eta guzti. Deitu: 761388.

**200 litrotako Fagor termo elektrikoa salgai.** Deitu: 764988 gauez.

**3 pertsonarentzako Iglu kanping-denda berria salgai.** Deitu: 763495.

**Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai.** Deitu: 86207 telefonora.

**AMSTRAD CPC 6128 ordenadorea salgai,** kolorezko monitorea, 40 joku eta 3 Joystick. 50.000 pzta. Deitu: 761528.

**Txakur kumea erregalatu nuke,** arraza onekoa, harra eta beltza. Tfnoa: 761975 (arratsaldeko ordu 2etatik 3etara)

**Neskentzako bizikleta salduko nuke.** BH bole-ro rosa modeloa. 7tik 11 urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

**Narruzko kremaileradun txaketa salgai.** Berri-berria. Deitu: 763968.

**SPECTRUM+2 bat salgai.** 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. Deitu: 762512.

**Karrerako bizikleta bat mendiko bizikleta bategatik trukatu nuke.** Deitu: 763269.

## LANA

**Arratsaldez lana egingo nuke etxeko lanak egiten edo umeak zaintzen.** Deitu: 765482.

**Neska euskaldun bat behar dut haurrak zaintzeko.** Tfnoa: 765892.

**Mutil batek furgoneta batekin errekauek egiten lan egingo luke.** Deitu: 742063.

## Hildakoak

*Emiliano Etxabarri Vidan*  
azaroaren 16an, 79 urte  
*Enrike Durana Berasategi*  
azaroaren 18an, 85 urte  
*Aniceto Iribecampos Arozena*  
azaroaren 19an, 84 urte

## Jaiotakoak

*Maite Larrañaga Azkarate-Askasua*  
azaroaren 12an  
*Mikel Gomez Rodriguez*  
azaroaren 12an

## AUTOPULLMANS ARABA Autobusak

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**


**ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70**

**Euskalduna  
Taberna**

**OSINTXU**

EUSKARA  
GIZARATERATZEARI  
BURUZKO  
ERAKUSKETA

.....



# EKIN EUSKARARI

... EUSKARAZ...  
URRUNDIK GATOZ,  
URRUNA GOAZ:  
ETA EGUNEROKO EKINEAN,  
EUSKARAZ...

.....

**Udaletxeko areto nagusian**  
azaroaren 26tik abenduaren 8ra.

**Inaugurazioa:**  
azaroaren 26an iluntzeko 7.30etan

**Ordutegia:**

- **ASTEGUNETAN:** -Goizez, 9.30-12.30  
- Arratsaldez, 6.00-8.30
- **JAIEGUNETAN:** -Goizez, 12.00-14.00  
- Arratsaldez, 6.00-8.30

**Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikarako Idazkaritzak  
antolatua.**

Bergarako Udala



Euskara eta Hezkuntza Batzordea